

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4378

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 12koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusi eta aldatzen baita Ditecsa Soluciones Medioambientales SL sozietateari (aurrerantzean, Diseño de Soluciones Ambientales SL) Debako udal-mugartean (Gipuzkoa) hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko emandako ingurumen-baimen integratua.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Befesa Gestión de Residuos Industriales SL enpresak Debako Itziar industrialdean (Gipuzkoa) hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko instalazioari.

2.– 2015eko abuztuaren 7an, Befesa Gestión de Residuos Industriales SLk gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren aurka, eta, 2021eko urriaren 26ko Aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak errekurtsua ebatzi zuen.

3.– Ingurumeneko sailburuordearen 2018ko martxoaren 2ko Ebazpenaren bidez, Ditecsa Soluciones Medioambientales SL sozietateari eskualdatu zitzaizkion Befesa Gestión de Residuos Industriales SLri emandako ingurumen-baimen integratuak, hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduerarako (AAI00368) eta hondakinak egonkortzeko eta solidotzeko lerro bat ezartzeko (AAI00313), Debako udal-mugartean.

4.– 2020ko otsailaren 28an, sustatzaileak Ditecsa Soluciones Medioambientales SLren sozietate-izena Diseño de Soluciones Ambientales SL izenarekin ordeztzeko eskatu zuen, eta 2019ko azaroaren 5ean baimendutako eskrituraren kopia erantsi zuen horretarako.

5.– 2020ko urriaren 29an, ingurumen-organoak, sozietate-izena aldatzeko eskaera horrekin lotuta, honako hau eskatu zion erakundeari: Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren Bigarren apartatuko A eta B azpiapartatuetan eskatzen diren aseguruaren eta fidantzaren egokitasuna egiazta dezala. Ebazpen horren bidez, ingurumen-baimen integratua ematen zaio Befesa Gestión de Residuos Industriales SL enpresak Deban sustatzen duen hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko instalazioari.

6.– 2020ko azaroaren 9an, Diseño de Soluciones Ambientales SLk dokumentazioa igorri zuen.

7.– 2021eko apirilaren 15ean, ingurumen-organo honek errekerimendu bat bidali zuen arestian aipatutako sozietate-izena aldatzeko eskaerarekin lotuta.

8.– 2021eko ekainaren 9an, instalazioaren titularrak instalazio baimenduan aldaketa bat egiteko asmoa jakinarazi zion Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari, eta aldaketa hori funtsezkoa ez zela ere bai. Horretarako, AAI00368_MNS_2021_001 dokumentazioa erantsi zuen, aldaketa hori funtsezkoa ez dela justifikatzeko.

2022ko urriaren 11, asteartea

9.– Organo honi jakinarazitako aldaketaren bidez, ingurumen-baimen integratua sartzen dira pilen, metagailuen eta baterien EHZ berriak, baita EHZ-TEEHak ere, urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuarekin bat etorritik. Dekretu horren bidez aldatzen dira 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1eko, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa.

10.– 2021eko irailaren 13an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Diseño de Soluciones Ambientales SLri: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko bestelako dokumentuak.

11.– Diseño de Soluciones Ambientales SLk 2021eko irailaren 24an aurkeztu zuen dokumentazioa, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaiona.

12.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela ikusi eta gero, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2021eko azaroaren 29an emandako Ebazpenaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunetz, ingurumen-baimen integratua emateko Diseño de Soluciones Ambientales SLk egindako berrikuste-eskaera, egoki ikusten ziren alegazioak aurkezteko; horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko abenduaren 16an.

13.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaitutakoan, alegaziorik ez dela aurkeztu egiaztatu da.

14.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2022ko otsailaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Uraren Euskal Agentziari eta Debako Udalari, eta 2022ko otsailaren 14an, Gipuzkoako Osasun Publikoari.

15.– 2022ko uztailaren 21ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betetz, Diseño de Soluciones Ambientales SLren esku utzi zen espedientea, bertan jasotako emaitzarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2007ko urriaren 24an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 23ko 26/2007 Legea, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

2.– 2008ko abenduaren 23an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretua, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako erregelamendua onartzen duena.

3.– 2011ko uztailaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

4.– 2012ko urtarrilaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen Jardueretarako Instalazioak arautzen dituena.

5.– 2013ko urriaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

6.– 2013ko abenduaren 11n, abenduaren 9ko 21/2013 Legea argitaratu zen, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

7.– 2014ko abenduaren 18an, Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua onartu zen, zeinaren bidez 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztu zen; onartu zen, orobat, Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaraua (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz.

8.– 2015eko otsailaren 21ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei (TEEH) buruzkoa; bertan, zenbait betekizun eta baldintza tekniko ezartzen dira tresna elektroniko eta elektronikoen hondakinak kudeatzen dituztenentzat.

9.– 2015eko ekainaren 25ean, ekainaren 25eko 4/2015 Legea onartu zen, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa.

10.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

11.– Aipatutako testu bateginaren 26. artikuluan daude ezarrita baimena berrikusteko baldintzak. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiari dagozkion TEOen inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak ziurtatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusi direla eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu direla, eta instalazioak aipatutako TEO erreferentzia-agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela.

12.– 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (2018/1147/EB Erabakia).

13.– 2019ko urriaren 15ean, urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitaezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuak–.

14.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, Ingurumeneko sailburuordearen 2022ko uztailaren 7ko Ebazpenaren baldintzak egokitu egin behar dira, ofizioz, indarrean araudi berrira, Ebazpen horren laugarren apartatuan jasotzen denari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

15.– 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren: 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; eta 2020ko urtarrilaren 23ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

16.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumeneari eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

17.– 2020ko ekainaren 19an, Estatuko lurraldean hondakinen garraioa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

18.– 2021eko azaroan, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana onartu zen.

19.– 2022ko apirilaren 1ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretua argitaratu zen, hondakinen finantza-bermei buruzkoa.

Aipatutako legeria, eta gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Funtsezkoa ez den baina ingurumen-baimen integratua aldarazten duen aldatzat jotzea Diseño de Soluciones Ambientales SLk 2021eko ekainaren 9an jakinarazitako aldaketa-proiektua, Deban hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduerarena.

Bigarrena.– Berrikustea Diseño de Soluciones Ambientales SLri emandako ingurumen-baimen integratua, Debako (Gipuzkoa) udal-mugaratean hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduerara gauzatzeko 2015eko uztailaren 7ko Ebazpen bidez emandakoa, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian azaltzen den baldintzetan.

Hirugarrena.– Aldatzea Diseño de Soluciones Ambientales SLri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua, hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko jarduerarako, eta, zentzu horretan, ebazpen horretako lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak ere aldatzea, zeinak honela geratuko baitira idatzita:

«Lehenengoa.– Egoitza soziala Sevillako udal-mugarateko Sevillako Portua 41011, Carretera de la Esclusa (z/g) kalean duen eta IFK zenbakia: B48456594 duen Diseño de Soluciones Ambientales SL enpresari Debako udal-mugaratean (Itziar industrialdean) hondakin arriskutsuak jaso, sailkatu, multzokatu eta aldi baterako biltegitratzeko instalazio bat jartzeko ingurumen-baimen integratua ematea, Ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzen arabera.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legearen (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 1. eranskineko 5.6 kategorian dago sartuta jarduera hori:

"5.6. 5.5. epigrafean jasota ez dauden hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzea, 5.1, 5.2, 5.5 eta 5.7 epigrafeetan adierazitako tratamenduetako bat aplikatu arte, 50 tonatik gorako edukierarekin, jasotzeko zain dagoen bitartean sortu den lekuan bertan aldi baterako biltegitratzea alde batera utzita".

Instalazioko hondakinen kudeaketa hondakinak onartu eta jasotzeko ezarritako prozedurarekin hasten da. Eragiketa horietan hondakinak onartzeko baldintzak betetzen direla bermatu beharko da.

Hondakinak jaso ostean, egokitzeko eta nahasteko operazioak egingo zaizkie, hondakinen balorizazio- edo azken ezabaketa-zentroetako onarpen-parametroak bete ditzaten. Kudeaketa-prozesuak hauek dira:

– Ezabatzeko lanak:

- D13: D1 eta D12 artean zerrendatutako edozein eragiketaren aurreko konbinazio edo nahasketak egitea.
- D14: D1 eta D13 artean zerrendatutako edozein eragiketaren aurreko berrontziratzea.
- D15: D1 eta D14 artean zerrendatutako edozein eragiketaren aurreko biltegitratzea (ekoizpen-lekutik jaso aurretik aldi baterako biltegitratzen denean izan ezik).

– Balorizatzeko lanak:

- R13: Hondakinak pilatzea, R1 eta R12 artean zerrendatutako edozein lanetan erabiltzeko (ekoizpen-lekutik jaso aurretik aldi baterako biltegitratzen denean izan ezik).
- R12: Hondakinak trukitzea, R1 eta R11 artean zerrendatutako lanetan erabiltzeko. Honen parte dira balorizazioaren aurreko eragiketak (aurreko tratamendua egitea, desmuntatzea, sailkatzea, birrintzea, konpaktatzea, trinkotzea, peletizazioa, lehortzea, zatikatzea, prestaketa, berrontziratzea, banatzea, konbinatzea edo nahastea), R1 eta R11 artean zerrendatutako eragiketen aurretik egiten badira. Eragiketa horren parte da ere xurgatzaileak birrintzea, presatu eta gero balorizatzeko.
- R1201: TEEHak sailkatu, bereizi edo taldekatzea.

Prozesuetan sortutako hondakin-urak Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren saneamendu-kolekto-rean tratatzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuak zein arriskugabeak ekipoak mantentzeko eta instalazioa zainzeko jardura orokorretatik datoz, nagusiki.

Diseño de Soluciones Ambientales SLren jardueran, Europako BREFean jasotzen diren teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira. Horretan zehazten dira Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera. 2018ko abuztua: 1. TEO, 2. TEO, 3. TEO, 4. TEO, 5. TEO, 6. TEO, 8. TEO, 11. TEO, 13. TEO, 14. TEO, 17. TEO, 18. TEO, 19. TEO, 21. TEO, 23. TEO, 24. TEO».

«Bigarrena.– Baldintza eta betekizun hauek ezartzea Diseño de Soluciones Ambientales SLk Debako udal-mugarrean (Gipuzkoa) sustatutako jardueraren ustiapenari; alegia, hondakin arriskutsuak hartzea, sailkatzea eta multzokatzea, eta aldi baterako biltegitratzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguruak.

Gutxienez seiehun mila (600.000) euroko erantzukizun zibileko aseguru bat eratu behar da, honako hauek estaliko dituena: hirugarren pertsonen edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Fidantza.

Ehun eta zortzi mila ehun (108.100) euroko fidantza jartzea, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 23. artikulua

5.b) apartatuan xedatutakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa zehazten da, hondakinak tratatu eta biltegitzeko gehieneko gaitasunen arabera.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak Diseño de Soluciones Ambientales SLk sustatutako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jarduera uzteko finkatutako baldintzak bete arte; baldintza horiek, betiere, lurzoruaren kalitate-adierazpenean ezartzen diren betebeharrak barne hartuko dituzte.

C) Administrazioarekiko harremanen erantzule.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean emandako datuetan aldaketarik badago, Diseño de Soluciones Ambientales SLk horren berri emango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala ezarriko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo apartatuetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak jaso, manipulatu eta biltegitzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko onartzen diren hondakinak ondorengo apartatuetan zehaztuko dira, non horiek zuzen kudeatzeko zehaztapenak jasotzen baitira.

D.1.1.– Onar daitezkeen hondakinak.

Diseño de Soluciones Ambientales SLk ondorengo Europako Hondakinen Zerrendako EHZ kodea duten hondakin hauek tratatu ahal izango ditu goian aipatutako tratamendu-sistemen bidez. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (horren bidez aldatu zen 2000/532/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EB Zuzentarauan xedatutakoa betez). Era berean, hondakinen kodeen esleipena eta haien sailkapena Erabaki horretan eta Batzordearen 1357/2014 Erregelamenduan (EB) ezarritakoaren arabera izango da –Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen)–. Horrela, bada, ondoren adierazitako hondakinak baino ez dira onartuko:

2022ko urriaren 11, asteartea

a) Transferentzia-zentroa - Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzea (R12/R13/D13/D14/D15).

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
010307*	Mineral metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikotik datozen bestelako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
010407*	Mineral ez-metalikoen eraldaketa fisiko eta kimikotik datozen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
010505*	Hidrokarburoak dauzkaten lohiak eta zulaketen hondakinak
010506*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten lohiak eta zulaketen bestelako hondakinak
020108*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin agrokimikoak
030104*	Zerrautsa, txirbilak, ebakinak, zura, partikula-taulak eta txapak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
030201*	Zur-kontserbagarri organiko ez-halogenatuak
030202*	Zur-kontserbagarri organokloratuak
030203*	Zur-kontserbagarri organometalikoak
030204*	Zur-kontserbagarri ez-organikoak
030205*	Zuraren bestelako kontserbatzaileak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
040103*	Koipegabetzeko hondakinak, fase likidorik gabeko disolbatzaileak dauzkatenak
040214*	Akaberren hondakinak, disolbatzaile organikoak dauzkatenak
040216*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten koloragarri eta pigmentuak
040219*	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
050102*	Geatzean sortutako lohiak
050103*	Tangen hondoetako lohiak
050104*	Alkil azidoaren lohiak
050105*	Hidrokarburoen isuriak
050106*	Instalazioen edo ekipamenduen mantentze-lanetan sortutako lohi oliotsuak
050107*	Mundrun azidoak
050108*	Bestelako mundrunak
050109*	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
050111*	Erregaiak baseekin garbitzean sortutako hondakinak
050112*	Azidoak dauzkaten hidrokarburoak
050115*	Iragazte-buztin erabiliak
050601*	Mundrun azidoak
050603*	Bestelako mundrunak
060101*	Azido sulfurikoa eta azido sulfurosoa
060102*	Azido klorhidrikoa
060103*	Azido fluorhidrikoa
060104*	Azido fosforikoa eta azido fosforosoa
060105*	Azido nitrikoa eta azido nitrosoa
060106*	Bestelako azidoak
060201*	Kaltzio hidroxidoa
060203*	Amonio hidroxidoa
060204*	Potasio hidroxidoa eta sodio hidroxidoa
060205*	Bestelako baseak
060311*	Zianuroak dauzkaten gatz solidoak eta disoluzioak
060313*	Metal astunak dauzkaten gatz solidoak eta disoluzioak
060315*	Metal astunak dauzkaten metal oxidoak
060403*	Artsenikoa daukaten hondakinak
060404*	Merkurioa daukaten hondakinak
060405*	Bestelako metal astunak dauzkaten hondakinak
060502*	Efluentek in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
060602*	Sulfuro arriskutsuak dauzkaten hondakinak
060701*	Elektrolisietako hondakinak, amiantoa daukatenean
060702*	Kloro-produkzioetik datorren ikatz aktibatua
060703*	Bario sulfatoaren lohiak, merkurioa daukatenak
060704*	Disoluzioak eta azidoak; esaterako, kontaktu-azidoa

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
060903*	Erreakzioko kaltziozko hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak edo substantzia arriskutsuez kutsaturik daudenak
061002*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakinak
061301*	Produktu fitosanitario ez-organikoak, zur-kontserbagarriak eta bestelako biozidak
061302*	Ikatz aktibatu erabilia (06 07 02 kategoria izan ezik)
061304*	Amiantoa eraldatzean sortutako hondakinak
061305*	Kedarra
070101*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070103*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070104*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070107*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070108*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070109*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070110*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070111*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
070201*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070203*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070204*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070207*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070208*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070209*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070210*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070211*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
070214*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten gehigarrietako hondakinak
070216*	Silikona arriskutsuak dauzkaten hondakinak
070301*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070303*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070304*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070307*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070308*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070309*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070310*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070311*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
070401*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070403*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070404*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070407*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070408*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070409*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070410*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070411*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
070413*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin solidoak
070501*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070503*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070504*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070507*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070508*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070509*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070510*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070511*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
070513*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin solidoak
070601*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070603*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
070604*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070607*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070608*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070609*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070610*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070611*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
070701*	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak
070703*	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak
070704*	Bestelako disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organikoak
070707*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako hondakin halogenatuak
070708*	Erreakzioan eta destilazioan sortutako bestelako hondakinak
070709*	Iragazte-opilak eta xurgatzaile halogenatu erabiliak
070710*	Bestelako iragazte-opilak eta xurgatzaile erabiliak
070711*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
080111*	Disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena pintura- eta berniz-hondakinak
080113*	Disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena pintura- eta berniz-lohiak
080115*	Pintura edo berniza daukaten lohi urtsuak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena
080117*	Pintura eta berniza desugertzearen edo kentzearen hondakinak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena
080119*	Pintura edo berniza daukaten esekidura urtsuak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena
080121*	Desugertzaileen edo berniza kentzeko sustantzien hondakinak
080312*	Tinten hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
080314*	Tinten lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
080316*	Disoluzio korrosiboen hondakinak
080317*	Inprimaketa-tonerren hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
080319*	Sakabanatze-olioak
080409*	Itsasgarrien eta zigilatzaileen hondakinak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena
080411*	Itsasgarrien eta zigilatzaileen lohiak, disolbatzaile organikoak edo bestelako substantzia arriskutsuak dauzkatena
080413*	Lohi urtsuak, disolbatzaile organikodun edo bestelako substantzia arriskutsudun itsasgarri edo zigilatzaileak dauzkatena
080415*	Hondakin likido urtsuak, disolbatzaile organikodun edo bestelako substantzia arriskutsudun itsasgarri edo zigilatzaileak dauzkatena
080417*	Erretxina-olioa
080501*	Hondakin-isoziatoak
090101*	Errebelatzeko eta aktibatze ur-disoluzioak
090102*	Inprimatzeko plakak errebelatzeko ur-disoluzioak
090103*	Disolbatzaileak dauzkatena errebelatzeko disoluzioak
090104*	Finkatzeko disoluzioak
090105*	Zuritzeko disoluzioak eta zuritzeko-finkatzeko disoluzioak
090111*	Behin bakarrik erabiltzen diren kamerak, 16 06 01, 16 06 02 edo 16 06 03 kodeetan dauden pila edo metagailuekin
090113*	Zilarra in situ berreskuratzean sortutako hondakin likido urtsuak, 09 01 06 kodean aipatutakoan desberdinak direnak
100104*	Hidrokarbuoen galdarako hautsa eta errauts hegalaria
100109*	Azido sulfurikoa
100113*	Erregai gisa erabiltako hidrokarbuo emulsioatuen errauts hegalaria
100114*	Etxeko errautsak, zepak eta galdarako hautsa, koerkausketan sortuak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
100116*	Koerkausketan sortzen diren errauts hegalaria, substantzia arriskutsuak dauzkatena
100118*	Gas-arazketan sortutako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
100120*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100122*	Galdarak garbitzean sortutako lohi urtsuak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100207*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100211*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100213*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100304*	Produkzio primarioko zepak
100308*	Produkzio sekundarioko gatz-zepak
100309*	Produkzio sekundarioko pikor beltzak
100317*	Anodoak fabrikatzean sortutako hondakinak, mundruna daukatenak
100319*	Gas-efluenteetako partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100321*	Bestelako partikulak eta hautsa (ehotze-prozesuko hautsa barne), substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100323*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100325*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100327*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100329*	Gatz-zepak eta grantza beltzak tratatzearen ondoriozko hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100401*	Produkzio primarioko eta sekundarioko zepak
100402*	Produkzio primarioko eta sekundarioko pikorrek eta aparrak
100403*	Kaltzio artseniatoa
100404*	Gas-efluenteetako partikulak
100405*	Bestelako partikulak eta hautsak
100406*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
100407*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
100409*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100503*	Gas-efluenteetako partikulak
100505*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
100506*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
100508*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100603*	Gas-efluenteetako partikulak
100606*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
100607*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak
100609*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100707*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100808*	Produkzio primarioko eta sekundarioko gatz-zepak
100812*	Anodoak fabrikatzean sortutako hondakinak, mundruna daukatenak
100815*	Gas-efluenteetako partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100817*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100819*	Hozteko uraren tratamenduan sortutako hondakinak, olioak dauzkatenak
100905*	Isurketa-hondarrik ez duten galdaketa-arrak eta -moldeak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100907*	Isurketa-hondarrak dauzkaten galdaketa-arrak eta -moldeak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100909*	Gas-efluenteetako partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
100911*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako partikulak
100913*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondar-aglutinatzaileak
100915*	Pitzadura adierazten duten agenteen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101005*	Isurketa-hondarrik ez duten galdaketa-arrak eta -moldeak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101007*	Isurketa-hondarrak dauzkaten galdaketa-arrak eta -moldeak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101009*	Gas-efluenteetako partikulak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101011*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako partikulak
101013*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondar-aglutinatzaileak
101015*	Pitzadura adierazten duten agenteen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101109*	Egoste-prozesua baino lehen nahasketak egitearen ondoriozko hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
101111*	Beirazko partikula txikiak eta beirazko hautsen hondakinak, metalak dauzkatenak
101113*	Beira leuntzean eta esmerilatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
101115*	Errekuntza-gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
101117*	Gasen tratamenduan sortutako lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
101119*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
101209*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
101211*	Metal astunak dauzkatena beiradura-hondakinak
101309*	Zuntz-zementua fabrikatzean sortutako hondakinak, amiantoa daukatenak
101312*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
101401*	Gas-arazketan sortutako hondakinak, merkurioa daukatenak
110105*	Desugerketa-azidoak
110106*	Beste kategorietan aipatzen ez diren azidoak
110107*	Desugertzeko baseak
110108*	Fosfatazio-lohiak
110109*	Lohiak eta iragazte-opilak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
110111*	Irakuzketako likido urtsuak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
110113*	Koipegabetzearen hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
110115*	Mintz sistemetatik edo ioi-elkartruketik sortutako eluato eta lohiak, gai arriskutsuak dauzkatena
110116*	Erretxina ioi-trukatzaille aseak edo erabiliak
110198*	Substantzia arriskutsuak dauzkatena bestelako hondakinak
110202*	Zinkaren hidrometalurgiako lohiak (jarosita eta goethita barne)
110205*	Kobrearen hidrometalurgia-prozesuetako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
110207*	Substantzia arriskutsuak dauzkatena bestelako hondakinak
110301*	Zianuroa daukaten hondakinak
110302*	Bestelako hondakinak
110503*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
110504*	Urgarri erabiliak
120106*	Mekanizazioko olio mineral halogenodunak (emultsioak edo disoluzioak izan ezik)
120107*	Mekanizazioko olio mineral halogenorik gabeak (emultsioak edo disoluzioak izan ezik)
120108*	Mekanizazioko emultsio eta disoluzio halogenodunak
120109*	Mekanizazioko emultsio eta disoluzio halogenorik gabeak
120110*	Mekanizazioko olio sintetikoak
120112*	Argizari eta koipe erabiliak
120114*	Mekanizazioko lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
120116*	Granailaketako edo zurrustaketako hondakinak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
120118*	Olioak dauzkatena lohi metalikoak (esmerilaketaren, artezketaren eta lapeaketaren ondoriozko lohiak)
120119*	Mekanizazioko olio biodegradaerazak
120120*	Esmerilaketako harri eta material erabiliak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
120301*	Garbiketako likido urtsuak
120302*	Koipe-kentzea lurrekin egitean sortutako hondakinak
130104*	Emultsio kloratuak
130105*	Emultsio kloratu gabeak
130109*	Olio hidrauliko mineral kloratuak
130110*	Olio hidrauliko mineral kloratu gabeak
130111*	Olio hidrauliko sintetikoak
130113*	Bestelako olio hidraulikoak
130204*	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile mineral kloratuak
130205*	Motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaile mineral kloratu gabeak
130208*	Bestelako motor-olio, transmisio mekanikoko olio eta olio lubrifikatzaileak
130306*	Beroa isolatzeko eta transmititzeko bestelako olio mineral kloratuak, 13 03 01 kodean aipatutakoan desberdinak direnak
130307*	Beroa isolatzeko eta transmititzeko olio mineral kloratu gabeak
130310*	Beroa isolatzeko eta transmititzeko bestelako olioak
130502*	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetako lohiak
130506*	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datozen olioak

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
130507*	Uraren/substantzia oliotsuen bereizgailuetatik datorren ur oliotsua
130701*	Fuel-olioa eta gasolioa
130802*	Bestelako emultsioak
130899*	Beste kategorietan aipatzen ez diren hondakinak
140601*	Klorofluorokarburoak, HCFC, HFC
140602*	Bestelako disolbatzaileak eta disolbatzaile halogenatuen nahasteak
140603*	Bestelako disolbatzaileak eta disolbatzaile-nahasteak
140604*	Disolbatzaile halogenatuak dauzkaten lohiak edo hondakin solidoak
140605*	Bestelako disolbatzaileak dauzkaten lohiak edo hondakin solidoak
150110*	Substantzia arriskutsuen hondarrak dauzkaten edo horiekin kutsatuta dauden ontziak
150111*	Metalezko ontziak, hutsik dauden presiozko ontziak barne, matrize solido eta porotsua daukatenak
150202*	Substantzia arriskutsuekin kutsatutako xurgatzaileak, iragazte-materialak (beste kategorian batean zehaztu gabeko olio-iragazkiak barne) garbitzeko zapiak edo babes-jantziak
160107*	Olio-iragazkiak
160108*	Merkurioa daukaten osagaiak
160111*	Amiantoa daukaten balazta-zapatak
160113*	Balazta-likidoak
160114*	Substantzia arriskutsuak daukaten izotz-kontrakoak
160121*	Bestelako osagai arriskutsuak, 16 01 07tik 16 01 11ra arteko kodeetan eta 16 01 13 eta 16 01 14 kodeetan aipatu ez direnak
160211*	Klorofluorokarburoak, HCFC, HFC dauzkaten ekipamendu baztertuak
160212*	Amianto askea daukaten ekipamendu baztertuak
160213*	Osagai arriskutsuak daukaten ekipamendu baztertuak (2), 16 02 09 eta 16 02 12 kodeetan aipatutakoen desberdinak direnak
160215*	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagai arriskutsuak
160303*	Substantzia arriskutsuak daukaten hondakin ez-organikoak
160305*	Substantzia arriskutsuak daukaten hondakin organikoak
160504*	Presio-ontzietako gasak (haloia barne), substantzia arriskutsuak daukatenak
160506*	Substantzia arriskutsuak diren edo substantzia arriskutsuak daukaten laborategiko produktu kimikoak, laborategiko produktu kimikoen nahasteak barne
160507*	Baztertutako produktu kimiko ez-organikoak, substantzia arriskutsuak direnak edo substantzia arriskutsuak daukatenak
160508*	Baztertutako produktu kimiko organikoak, substantzia arriskutsuak direnak edo substantzia arriskutsuak daukatenak
160601*	Berunezko bateriak
160602*	Nikel-kadmiozko metagailuak
160603*	Merkurioa daukaten pilak
160606*	Gaika bildutako pilen eta metagailuen elektrolitoak
16 06 07*	Litioa edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litiozko pilak edo ion-litiozko metagailuak
16 06 08*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak. Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak
16 06 09*	Beste substantzia arriskutsu batzuk daukaten metagailuak, pilak edo bateriak
160708*	Hidrokarburoak daukaten hondakinak
160709*	Bestelako substantzia arriskutsuak daukaten hondakinak
160802*	Trantsizio-metal (3) arriskutsuak edo trantsizio-metal arriskutsuen konposatuak daukaten katalizatzaile erabiliak
160805*	Azido fosforikoa daukaten katalizatzaile erabiliak
160806*	Katalizatzaile gisa erabilitako likido erabiliak
160807*	Substantzia arriskutsuekin kutsatutako katalizatzaile erabiliak
160901*	Permanganatoak; adibidez, potasio permanganatoa
160902*	Kromatoak; adibidez, potasio kromatoa, sodio dikromatoa edo potasio dikromatoa
160903*	Peroxidoak; adibidez, hidrogeno peroxidoa
160904*	Beste kategorietan aipatzen ez diren substantzia oxidatzaileak

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
161001*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin likido urtsuak
161003*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten kontzentratu urtsuak
161101*	Prozesu metalurgikoen ondoriozko eta karbonoaren bidez lortutako estaldurak eta erregogorrek, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
161103*	Prozesu metalurgikoetatik datozen bestelako estaldurak eta erregogorrek, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
161105*	Prozesu ez-metalurgikoetatik datozen estaldurak eta erregogorrek, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
170106*	Hormigoia, adreiluen, teilen eta material zeramikoen nahasteak edo frakzio bananduak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
170204*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten edo haiekin kutsatuta dauden beira, plastikoa eta zura
170301*	Harrikatz-mundruna daukaten nahaste bituminosoak
170303*	Harrikatz-mundruna eta produktu mundrunetzatuak
170409*	Substantzia arriskutsuekin kutsatutako hondakin metalikoak
170503*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten lur eta harriak
170505*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten drainatze-lohiak
170507*	Trenbideetako balastoa, substantzia arriskutsuak dauzkana
170601*	Amiantoa daukaten isolamendu-materialak
170603*	Substantzia arriskutsuak diren edo substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako isolamendu-materialak
170605*	Amiantoa daukaten eraikuntza-materialak
170801*	Igeltsuarekin egindako eraikuntza-materialak, substantzia arriskutsuekin kutsatuta daudenak
170901*	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, merkurioa daukatenak
170903*	Eraikuntzako eta eraispeneko bestelako hondakinak (hondakin nahastuak barne), substantzia arriskutsuak dauzkatenak
180106*	Substantzia arriskutsuak diren edo substantzia arriskutsuak dauzkaten produktu kimikoak
180110*	Hortz-zainketako amalgamen hondakinak
180202*	Infekzioak prebenitzeko, baldintza berezien pean biltzen eta deuseztatzen diren hondakinak
180205*	Substantzia arriskutsuak diren edo substantzia arriskutsuak dauzkaten produktu kimikoak
190105*	Gasen tratamenduko iragazte-opila
190106*	Gasen eta bestelako hondakin likido urtsuen tratamenduan sortutako hondakin likido urtsuak
190107*	Gasen tratamenduan sortutako hondakin solidoak
190110*	Gasen tratamendutik datorren ikatz aktibatu erabilia
190111*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten zepak eta labe-hondoko errautsak
190113*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten errauts hegalaria
190115*	Substantzia arriskutsuak dauzkan galdarako hautsa
190117*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten pirolisi-hondakinak
190204*	Aurrez nahastutako hondakinak, gutxienez hondakin arriskutsu batez osatuak
190205*	Tratamendu fisiko-kimikoen ondoriozko lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
190207*	Bereizteko prozesuan sortutako olioak eta kontzentratuak
190208*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin erregai likidoak
190209*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten hondakin erregai solidoak
190211*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako hondakinak
190304*	Partzialki egonkortutako hondakin arriskutsuak
190306*	Solidotutako hondakin arriskutsuak
190403*	Fase solido ez-beiraztatua
190702*	Hondakindegiko lixibiatuak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
190806*	Erretxina ioi-trukatzaille aseak edo erabiliak
190807*	Ioi-trukatzailleak birgaitzearen ondoriozko soluzioak eta lohiak
190808*	Mintz-sistemetatik datozen hondakinak, metal astunak dauzkatenak
190810*	Ur/sustantzia oliotsuen bereizkuntzatik ateratako koipeen eta olioen nahasketak, 19 08 09 kodean zehaztutakoak ez bezalakoak
190811*	Industriako ur zikinen tratamendu biologikoan sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
190813*	Industriako ur zikinen bestelako tratamenduen ondoriozko lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
191003*	Zatikatzeko-frakzio arinak (fluff-light) eta hautsa, substantzia arriskutsuak dauzkatenak
191005*	Substantzia arriskutsuak dauzkaten bestelako frakzioak

2022ko urriaren 11, asteartea

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
191101*	Iragazte-buztin erabiliak
191102*	Mundrun azidoak
191103*	Likido urtsuen hondakinak
191104*	Erregaiak baseekin garbitzean sortutako hondakinak
191105*	Efluenteak in situ tratatzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
191107*	Gas-efluenteak araztean sortutako hondakinak
191206*	Substantzia arriskutsuak dauzkan zura
191211*	Hondakinen tratamendu mekanikoaren ondoriozko bestelako hondakinak (materialen nahasteak barne), substantzia arriskutsuak dauzkatena
191301*	Lurzorua berreskuratzean sortutako hondakin solidoak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
191303*	Lurzorua berreskuratzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
191305*	Lurpeko urak berreskuratzean sortutako lohiak, substantzia arriskutsuak dauzkatena
191307*	Likido urtsuen eta kontzentratu urtsuen hondakinak, lurpeko urak berreskuratzearen ondorioz, substantzia arriskutsuak dauzkatena
200113*	Disolbatzaileak
200114*	Azidoak
200115*	Alkaliak
200117*	Produktu fotokimikoak
200119*	Pestizidak
200121*	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa daukaten bestelako hondakinak
200123*	Klorofluorokarburoak dauzkatena ekipamendu baztertuak
200126*	20 01 25 kodean aipatutako desberdinak diren olioak eta koipeak
200127*	Substantzia arriskutsuak dauzkatena pinturak, tintak, itsasgarriak eta erretxinak
200129*	Substantzia arriskutsuak dauzkatena detergenteak
200133*	16 06 01, 16 06 02 edo 16 06 03 kodeetan zehaztutako bateriak eta metagailuak, eta bateria horiek dauzkatena sailkatu gabeko bateriak eta metagailuak
200135*	20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan aipatutako desberdinak diren ekipamendu elektriko eta elektronikoz baztertuak, osagai arriskutsuak dauzkatena [6]
200137*	Substantzia arriskutsuak dauzkan zura
20 01 42*	Litioa edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola litiozko pilak edo ion-litiozko metagailuak
20 01 43*	Nikela edozein modutan dagoen metagailuak, pilak edo bateriak, hala nola nikel metal hidruroko (Ni-MH) metagailuak. Kode honetatik kanpo geratzen dira nikel-kadmiozko metagailuak eta bateriak
20 01 44*	Beste substantzia arriskutsu batzuk dauzkatena metagailuak, pilak edo bateriak

b) TEEH transferentzia-zentroa - TEEH hondakinak aldi baterako biltegiatzea (R1201).

EHZ-TEEH kodea	Hondakinaren deskribapena
16 02 11*-11*	Etxetresna elektriko handiak, hauekin tenperatura elkar trukatzeko dutenak: CGC, HCFC, HC eta NH ₃ . Profesionala
16 02 11*-12*	Etxetresna elektriko handiak. Aire girotua. Profesionala
16 02 11*-41*	Osagai arriskutsuak dauzkatena gailu handiak (Profesionala)
16 02 12*-41*	Gailu handiak. Kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak. Osagai arriskutsuekin. Profesionala
16 02 12*-51*	Gailu txikiak, 50 cm-tik gorako kanpoko neurriak ez dutenak. Osagai arriskutsuak eta pilak dauzkatena gailu txikiak. Profesionala
16 02 13*-13*	Zirkuituetan edo kondentsadoreetan gailu oliodunak dauzkatena etxetresna elektriko handiak. Profesionala
16 02 13*-21*	CRT monitoreak eta pantailak. Profesionala
16 02 13*-22*	Informatika- eta telekomunikazio-ekipoak. Monitoreak eta pantailak, CRT eta LED ez direnak

EHZ-TEEH kodea	Hondakinaren deskribapena
16 02 13*-41*	Gailu handiak. Kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak. Osagai arriskutsuekin. Profesionala
16 02 13*-51*	Gailu txikiak. 50 cm-tik gorako kanpoko neurririk ez dutenak. Osagai arriskutsuak eta pilak dauzkaten gailu txikiak. Profesionala
16 02 13*-61*	Osagai arriskutsuak dauzkaten informatika- eta telekomunikazio-gailu txikiak (Profesionala)
16 02 13*-72*	Eguzki-panel handiak (kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak). Panel fotovoltaiko arriskutsuak (Si). Profesionala
20 01 21*-31*	Deskargako lanparak, LED ez direnak. Lanpara fluoreszenteak. Etxekoa eta Profesionala
20 01 23*-11*	Etxetresna elektriko handiak, hauekin tenperatura elkar trukutzen dutenak: CGC, HCFC, HC, NH ₃ . Etxekoa
20 01 23*-12*	Etxetresna elektriko handiak. Aire girotua. Etxekoa
20 01 23*-41*	Osagai arriskutsuak dauzkaten gailu handiak (Etxekoa)
20 01 35*-13*	Zirkuituetan edo kondentsadoreetan gailu oliodunak dauzkaten etxetresna elektriko handiak. Etxekoa
20 01 35*-21*	CRT monitoreak eta pantailak. Etxekoa
20 01 35*-22*	Monitoreak eta pantailak, CRT eta LED ez direnak. Etxekoa
20 01 35*-41*	Gailu handiak, informatika- eta telekomunikazio-ekipoak barne. Kanpoko neurria 50 cm-tik gorakoa dutenak. Osagai arriskutsuekin. Etxekoa
20 01 35*-51*	Gailu txikiak. 50 cm-tik gorako kanpoko neurririk ez dutenak. Osagai arriskutsuak eta pilak dauzkaten gailu txikiak. Etxekoa
20 01 35*-61*	Informatika- eta telekomunikazio-ekipoak. Osagai arriskutsuak dauzkaten gailu txikiak. Etxekoa

Halaber, zama lanak baimentzen dira, eta, behar izanez gero, hondakin horien berrontziratze-eragiketak.

– Baimen honen esparrutik kanpo geratuko dira betiere leherkariak, erregarriak eta hondakin infekziosoak (azken horiei HP1, HP2 eta HP9 arriskugarritasun-kodeak dagozkie, hurrenez hurren), HP12 arriskugarritasun multzoko hondakinak, eta bifenilo polikloratuak edo terfenilo polikloratuak izan edo osagai horiekin kutsatuta daudenak (C32 osagai-kodedunak).

– Ekipamendu elektriko eta elektroniko hondakinak eta hodi fluoreszenteak kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektroniko Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretuan, otsailaren 20koan, xedatutakoaren arabera.

– Halaber, pilen eta metagailuen hondakinak otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatu beharko dira (pilen eta metagailuen hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko Errege Dekretua).

– Diseño de Soluciones Ambientales SLk industriaren sortutako etxeko zaborrak eta merkataritza-hondakinak kudeatu ahal izango ditu (20. taldeko EHZ kodea duten hondakinak), ebazpen honetan adierazi direnak soilik, baldin eta dagozkion udal-ordenantzen arabera ez bada beharrezkoa hondakinok hondakinen kudeaketa-sistema publiko bati entregatzea.

D.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrol bat eraman beharko da, ebazpen honetako baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da alde zuzeneko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onospena eta ebazpen honen I. apartatuan adierazitakoa betetzea.

Hondakin (EHZ) gehiago kudeatzeko eskaera eginez gero, Diseño de Soluciones Ambientales SLk behar bezala adierazi beharko du horien kudeaketa-bidea, eta, era berean, hondakinak lekualdatzeko operadorearekin egindako tratamendu-kontratua aurkeztu beharko du. Proposatutako kudeaketa-bideetan izandako aldaketak organo honi jakinarazi behar zaizkio haiek egin aurretik, eta, jakinarazpen horrekin batera, tratamendu-kontratu berria igorriko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hura baliozkotu dezan.

Kudeatzaile baimenduekin akordioak egingo dira TEEH hondakinak prestatzeko eta berrerabiltzeko.

Instalazioan tratatuko diren hondakin guztiak tratamendu-kontratu batean jasoko dira, hondakina lekualdatzeaz arduratzen den operadorearen eta Diseño de Soluciones Ambientales SLren artean sinatu beharrekoa. Tratamendu-kontratuak behar bezala bete beharko du ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren (Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena) 5. artikuluan ezarritakoa, eta honako hauek hartu beharko ditu barne, besteak beste: hondakinek jaso behar duten tratamendua, hondakinak onartzeko baldintzak eta hondakinari uko egiteko aukerarekin lotuta bi alderdiek dituzten betebeharrak.

Hondakinak lekualdatzeko, hondakinak lekualdatzen diren guztietan behar bezala bete beharko da ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena.

Horrekin bat etorritik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 31.2 artikulua araberara.

Unean uneko egoeraren ezaugarriei erreparatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen baitako hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du buruaskitasuneko eta gertutasuneko printzipioak aintzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planeko Helburu Estrategikoetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Edonola ere, birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak helburu horietara bideratuko dira, eta Diseño de Soluciones Ambientales SLk betetako tratamendu-kontratuetan jasoko da gertaera hori.

Diseño de Soluciones Ambientales SLk lekualdaketa buruzko informazioa jaso beharko du bere fitxategi kronologikoan, eta identifikazio-agiriaren kopia sinatua gorde beharko du hiru urtez; bertan, hondakinak entregatu eta onartu izana adieraziko da.

Aldez aurretik jakinarazi behar diren hondakin-lekualdaketa identifikatzeko agirien kasuan, Diseño de Soluciones Ambientales SLk gehienez 30 eguneko epea izango du, hondakinak jasotzen dituenetik, organo eskudunari identifikazio-agiri hori bidaltzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ingurumen-arloko informazioa kudeatzeko sistema erabiliz.

Hondakin bat baztertzen denean, eta hondakin horren EHZ kodea hondakin baimenduena bada, tratamendu-kontratuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Organo honi jakinarazpen bat bidaliko zaio berehala (ippc@euskadi.eus helbide elektronikora), eta honako hauek jakinarazi beharko zaizkio:

– Baztertzeko arrazoia.

– Baztertutako hondakina lekualdatzeko operadoreak aukeratu duen ordezkotako aukera kudeatzeko bidea.

Baldin eta onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organoari ere jakinarazi egin beharko zaio.

2022ko urriaren 11, asteartea

Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Diseño de Soluciones Ambientales SLk une oro eskura izan beharko ditu: hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide teknikoak eta giza baliabideak. Onarpena baldintzatzen duten parametro horiek ezartzea, kasu guztietan eta hondakin-partida bakoitzerako, metodo homologatuaren bidez egingo da; zentroaren langile taldeko kide den laborategiko buru batek gainbegiratu beharko du eta espezializatutako tituluduna izan beharko da.

D.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuek zola iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak egitean, gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipamenduen estankotasunak ere, emisio lausoak edo kontrolik gabeak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien txikitu.

d) TEEH hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko baldintzek TEEH hondakinak eta horien osagaiak prestatzea eta berrerabiltzea ahalbidetu behar dute, eta ez dira apurtu behar, ezta gehiegi pilatu ere, substantziarik isuri edo materialik galdu behar, eta oliorik eta likidorik isuri behar. Merkurioa duten lanparak biltegitzen badira, behar bezala beteko dira horiek jaso eta garraiatzeko baldintza espezifikokoak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren VII. eranskinean jasotzen direnak.

Aurrez manipulatu diren, hondatuta dauden edo osagai guztiak ez dituzten gailuak jasotzen badira, gertakari hori behar bezala jakinarazi beharko da E.6 apartatuan aipatzen den fitxategi kronologikoan.

D.1.4.– Jasotako hondakinen biltegitratzea.

a) Balorizatu beharreko hondakinen gehieneko biltegitratze-epea bi urtekoa izango da hondakinak arriskugabeak badira, eta sei hilekoa arriskutsuak badira.

b) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihesak edo isuriak hartzeko gai direnak; gainera, biltegitratze-eremu bereziak izango dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

c) Hondakin arriskutsuak biltegitratzearen ondoriozko arriskuak murrizte aldera, Diseño de Soluciones Ambientales SLk gune berezian biltegitratu beharko ditu hondakinok. Gune hori estalita egongo da eta lurzoru estankoak izan beharko ditu.

d) Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

e) Hautsezko hondakinak eta ontziratutako gabe jasotakoak kanpoko patioan biltegitratuko dira, hondakin mota horrentzat diseinatutako aletegi estalietan.

f) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko ontzi edo sistema egokiak jarriko dira, ezberrez gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezkeen. Bilketa-sistemak independenteak izan

behar dute hondakin mota hauetarako: isuriren bat gertatu eta nahasiz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakartenetarako.

g) Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, gertaera hori berehala jakinarazi beharko zaie Ingurumen Sailburuordetzari eta Debako Udalari.

h) Instalazioaren etenaldi teknikoko egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzio-namenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Diseño de Soluciones Ambientales SLk D.1.1 apartatuan adierazi diren hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak beste instalazio baimendu batera eramateko, han kudeatu daitezten.

i) Aldi baterako biltegitratzean eta ontziak xukatu, prentsatu eta briketatzeko eragiketetan sortutako hondakin likido oro, gaika bildu eta euren artean bateragarriak diren hondakinentzako gordailuetara eraman behar dira. Horiek sistema bat izango dute gainezkaldien edo estankotasuna galtzearen ondorioz izan litezkeen isuriak atxikitzeke. Horretarako, gutxienez 1 m³-ko eta gaitasun unitarioa duten 3 depositu izango dira, kudeatutako metalezko ontzien tipologiaren arabera.

j) Depositu horietara bideratuko dira, halaber, biltegitratzeko instalazioak garbitzean sortutako efluenteak.

Hondakin likido horiek, helburu horretarako baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzaileari bidaliz kudeatu behar dira.

k) Diseño de Soluciones Ambientales SLk hondakin, substantzia edo prestakin arriskutsuak dituzten edo horiez kutsatutako metalezko ontziak diren hondakin arriskutsuak biltegitratzeko guneak iragazgaiztu beharko ditu, epoxi-pintura edo/eta polietileno-xafla baten inprimaketaren bidez.

D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa.

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Diseño de Soluciones Ambientales SL enpresak fitxategi kronologiko fisiko edo telematiko bat izan beharko du, eta bertan, esku hartutako jarduera guztiei buruzko datuak jasoko dira ordena kronologikoan. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

- Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).
- Hondakin horien kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.
- Hondakin-sail bakoitzaren onarpen- eta harrera-data, eta, hala dagokionean, entregan sortutako kontrol- zein segimendu-agiria.
- Onartu ez diren hondakin sortei buruzko datuak (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta beste norako bat, ordezeko aukera gisa).
- Biltegitratutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.
- Hondakin sortak aurretik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, datak, parametroak eta partida horiei buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta sorta bakoitzari emandako EHZ kodea.
- Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaionekoa eta kudeatzaile horren identifikazio-datuak, eta, hala badagokio, sortutako kontrol- eta jarraipen-agiriarenak.
- Bereзитako hondakin arriskutsuen mota bakoitzaren izaera eta pisuarekiko zatikia.

Ebazpen honetako D.1.2 apartatuan aipatutako kontrolen emaitzak apartatu honetan araututako erregistroan jasoko dira, baita Diseño de Soluciones Ambientales SLk egin ditzakeen kontrasteko horiek ere.

TEEH hondakinak kudeatzeko, fitxategi kronologikoak bat etorri beharko du 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin, eta bertan datu hauek jasoko dira gutxienez, ordena kronologikoan:

A) Sarrera.

- a) TEEHa noiz entregatu den.
- b) TEEHa entregatu duen erabiltzailearen edo erakundearen identifikazioa (kasuan-kasuan aplikatutakoaren arabera): TEEHen partikular/banatzaille/garbigune/ekoizle-sare/ekoizle profesionala.
- c) Izena (sozietate-izena), helbidea, autonomia-erkidegoa, IFZ, ingurumeneko identifikazio-zenbakia, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko inskripzio-zenbakia.
- d) Garraiolaria (balego): Izena (sozietate-izena), IFZ, helbidea, autonomia-erkidegoa eta kudeatzailearen kodea.
- e) Entregatutako tresna mota eta marka.
- f) Pisua.
- g) EHZ TEEH kodea.
- h) Erabilera (etxekoa/profesionala).
- i) Serie-zenbakia (ahal den guztietan).
- j) TEEHren etiketaren edo instalazioan TEEHak gordetzen diren edukiontzien erreferentzia-zenbakia.
- k) Oharrak eta gorabeherak, adibidez funtzionamendu-egoerari, berriz erabiltzeko aukerari buruzkoak, betetik dagoen, etab.

Tresna txikiei eta lanparei dagokienez, sarrerari buruzko banako informazio hori ez da beharrezkoa izango, eta horren ordez frakzio horretarako berariazko edukiontzien identifikazioa beharko da.

B) TEEHak edukiontzi edo kaiolatan ateratzea:

- a) Edukiontzia edo kaiola instalaziotik irteteko data.
- b) EHZ-TEEH kodea.
- c) Edukiontzi-erreferentzia, TEEHen irteera-pisua, edukiontzia.
- d) Garraiolariaren identifikazioa.
- e) Helmuga (hondakinak kudeatzeko instalazioaren datuak).
 - 1) Helbidea eta autonomia-erkidegoa.
 - 2) Mota: Berrerabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ), kargaren transferentzia- edo bilketa-zen-troa, tratamendu espezifikorako instalazioa.
 - 3) Ingurumeneko identifikazio-zenbakia.
 - 4) IFZ.

2022ko urriaren 11, asteartea

5) Ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko inskripzio-zenbakia.

f) Bildu eta kudeatzen duen erakundeari buruzko informazioa (esleipen-bulegoa edo biltzeko instalazioak kontratatutako kudeatzailea).

g) Esleipen-bulegoaren bilketaren erreferentzia-zenbakia.

h) Biltzeko instalaziotik bilketa finantzatzen duen erantzukizun hedatuko sistema.

Fitxategi kronologiko horiek hiru urtez gorde beharko dira gutxienez eta urtero bidali beharko dira Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatze-koaren, 65. artikuluekin bat etorritik, jardueren memoria laburra aurkeztu beharko da urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegitratutako hondakinen eta hondakin kopuruen zerrenda ere jasoko du, instalazioan tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena bai eta sortutako hondakinena ere.

TEEHak kudeatzeko jarduerarako, urteko memoriak behar bezala bete beharko du otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XII. eranskinean jasotako edukia, gutxienez.

Fitxategi kronologikoa eta jasotako TEEH hondakinei buruzko urteko memoria plataforma elektronikoa kargatuko dira erabilgarri dagoenean, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aurreikusitako terminoetan. Plataforma elektronikoa horren bitartez, fitxategi kronologikoari eta urteko memoriaren lanketari dagozkion betebeharrak bete ahal izango dira.

D.1.6.– Estatz kanpotik inportatutako hondakinak.

Baldin eta kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen Lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegean ezabatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta ezabatze-tratamendutik lortutako korrante esanguratsuren bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plan-gintzaren helburuekin.

D.2.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

D.1 apartatuan adierazten diren hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintza eta kontrolei kalterik egin gabe, Diseño de Soluciones Ambientales SLk ondorengo tratamendu-lerroerako ondorengo baldintza hauek betetzen direla bermatu beharko du:

Transferentzia-zentroa - Aldi baterako biltegitratzea.

a) Aldi baterako biltegitratze-jardueraren barruan honako hauek sartuko dira: multzokatzea, produktua edukiontziz aldatu gabe, instalazioan horretarako gaitutako tokian 715 t inguruko ahalmenarekin, baita haren zama, hustuketa eta berrontziratzea ere beharrezkoa izanez gero, eta ez

da ontzien barruko aldearen edo ontzietan gordetzen diren hondakinen gainean eragina daukan bestelako manipulaziorik aintzat hartzen.

b) Ontziratutako hondakinei dagokienez, homogeneoekin batera beren izaera, osaketa eta kodifikazioaren arabera soilik biltegitratu ahal dira, eta alde aurretik karakterizazioa egin beharko da elkarrekin biltegitratzeak ez duela arriskua areagotzen edo haren azken kudeaketa zailtzen ziurtatzeko.

c) Halaber, nahitaez bete beharko dira hondakin arriskutsuak ontziratutako eta etiketatzeari buruzko jarraibideak, indarreko araudian jasotakoak.

Halaber, Europako Hondakinen Zerrendan –Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaz onartutakoan– ezarri kodearen arabera identifikatu beharko dira hondakinak. Erabaki horren bitartez aldatu zen hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz.

d) Hondakinak aldi baterako biltegitratzeko instalazioetan, hondakin horien zama egiteko ibilgailuen aparkalekuak lurzoru estankoa izango du, eta beharrezkoak diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo gai arriskutsuen beste ibilgailu batzuetara hurbildu gabe.

e) Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko instalazioak estalkia izan beharko du, prezipitazio atmosferikorik iragaz ez dadin. Halaber, lurzoru estankoa izango ditu, eta behar diren maldak eta balizko isuriak biltzeko sareak, isuriok kutxatila itsurantz edo bilketa-putzurantz bideratzeko. Gainera, aurreikus daitezkeen hondakin arriskutsuen balizko isurien adinako edukiera izango dute horiek.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriari dagokienez, biltegitratutako hondakinek likido sukoiak eta erregaiak eta likido korrosiboak biltegitratzearen inguruan indarrean dagoen arautegian ezarritzen diren exigentziak bete beharko dituzte, baita suteen prebentzio- eta babes-arauak ere, eta behar bezala identifikatu beharko dira ezagutu eta bereizi ahal izateko.

g) Isuriak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuak kubeta independenteetan biltegitratuko dira, eta, betiere, elkarrekin bateragarriak diren hondakinak dituzten ontzietara bideratuko da kubeta bakoitza. Isuriak biltzeko kubetek zoru eta horma iragazgaitzak izango dituzte, erabat estankoa direnak. Kutxatila horietan jasotako efluenteak kudeatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio.

h) Baimen honi loturiko hondakin arriskutsu ontziratutako gune bereizietan biltegitratuko dira, motaren arabera identifikatuta. Tratatzeko jasotzen diren hondakin arriskutsuen biltegitratzeko gehieneko gaitasuna 715 tonakoa da, honela banaturik:

– Deposituetan biltegitratuta (guztizko edukiera: 90 m³)

• 30 m³-ko karbono-altzairuzko bi depositu, ITC-MIE-APQ 1en arabera B1 klasekoak diren likidoak biltegitratzeko.

• 30 m³-ko poliestereko sendotuzko bi depositu, ITC-MIE-APQ 6ren arabera sailkatutako likidoak biltegitratzeko.

– Ontzi mugikorretan biltegitratuta (guztizko edukiera: 320 m³)

• Metalezko ontziak: latorriz, altzairuzko xaflaz, aluminioz eta abarrez egindako bidioak. Kasu gehienetan 200 litroko edukiera dute.

- Metalezkoak ez diren ontziak: polipropilenoaz eta dentsitate handiko polietilenoaz egindako bidoiak, hainbat edukieratakoak, 1 m³-ko polietilenoazko edukiontziak, big-bagak, etab.
- Hiru apalategi-lerro, 320 paletentzako lekuarekin. Palet bakoitzak 200 litroko lau bidoi edo 1.000 litroko edukiontzi bat ditu.

Produktuak honela banatzen dira:

- B1 motako produktua: 38 m³ guztira.
- C motako produktua: 40 m³ guztira.
- Erregaiak edo sukoiak ez diren produktuak: 242 m³ guztira.
- Ontziratutako gabeko solidoentzako aletegietan biltegituta (guztizko edukiera: 305 m³)

Ontziratutako gabeko solidoak biltegitatzeko lau hobi dira, eta bertan hondakin solido arriskutsuak bereizita biltegitatzen dira.

i) Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitatzeko jardueran sortutako efluente oro, ur beltzak izan ezik, bereizita jaso behar da, eta haren ezaugarrien arabera behar bezala kudeatu, eta ezin izango da sarera isuri.

D.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Diseño de Soluciones Ambientales SLren instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete behar dira: atmosferara egingo diren emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea, giza osasuna eta ingurumena zainduta, betiere.

Prozesuan zehar aireratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteek giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Proiektuan aipatzen diren atmosferako kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira, bereziki hautsa ez isurtzeko neurriak, hala nola agregakin-multzoak ureztatzea edo bideak garbitzea.

Organo horrek foku berri baterako baimena eman ondoren, fokua abian jarri eta sei hilabete igaro aurretik, ingurumen-kontrolerako erakundeak egindako hasierako IKE txostena igorri behar da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

D.2.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Diseño de Soluciones Ambientales SLren instalazioa urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren eranskinaren arabera 09 10 09 51 kodea duen jarduerari dagokio (biltegiatzea edo manipulazio-eragiketak gauzatzea, tartean, hondakin ez-metalezkoak edo metalezko hondakin hautsezkoak nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo txikiagotzea, material horien gaineko manipulazio-ahalmena ≥ 100 t/egun eta < 500 t/egun-ekoa izanik, eta hondakin arriskutsuena ≥ 1 t/egun-ekoa eta < 10 t/egun-ekoa), eta honako foku hauek ditu, atmosfera babesteko indarreko araudiari jarraikiz:

Fokua	Kodea	Izena	Altuera (m)	Diametroa (mm)	APCA katalogazioa	Funtzionamendu-erregimena	UTM koordenatuak	
							X	Y
1	20016575-01	Gas-ikuzketa	2	160	C	Sistematikoa	553.983	4.791.044

Gainera, emisioak lausoak jaso eta ikatz aktiboaren bidez tratatzeko ekipamendua ere badute.

Foku ez-sistematikoetakoren bat, batez beste, urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzerara pasatuko balitz, ordubeten baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku gisa araupetu beharko da.

D.2.2.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira emisioen muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Emisioen muga-balioak
1	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm ³
1	Gutzizko karbono organiko lurrunorra (GKOL)	50 mg C/Nm ³
1	Hidrogeno sulfuroa (H ₂ S)	5 mg/Nm ³
1	Amoniakoa (NH ₃)	30 mg/Nm ³ ≤ 150 g/h bada
1	Azido fluorhidrikoa (HF)	5 mg/Nm ³

Balio horiek baldintza hauekin lotuta daude: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Lehen kontroleko emaitzen arabera, organo honek aldian behin kontrolatu beharreko parametroak berrikusiko ditu.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoa beteko da. Ikusten bada emisioen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

D.2.2.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren D.2.2.2 azpiapartatuan ezarritako goreneko kotatik behera. Ingurumenaren arloko eskumenak dituen Sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute elementu hauek: atala, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Emisio lausoak minimizatzeko helburuarekin, jarioak antzemateko ekipoak erabiliko dira eta ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da.

D.2.3.– Saneamendu-sarera isuria egiteko baldintzak.

D.2.3.1.– Isuriaren sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: transferentzia-zentroa:

Isurgunea	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordinatuak
V1	Ur beltzak	Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren saneamendu-kolektorea	X: 553.971,928 Y: 4.791.079,338
V2	Euri-ur garbiak	Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren saneamendu-kolektorea	X: 553.907,61 Y: 4.790.873,86
V3	Euri-ur zikinak	Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren saneamendu-kolektorea	X: 553.849,67 Y: 4.790.869,04

D.2.3.2.– Isuriaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isuriaren parametroak Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren Isuriak arautzen dituen Erregelamenduan ezarritakoak izango dira (GAO, 146. zk., 2012-08-01ekoa); honako hauek dira parametroak, isuri bakoitzerako zehazten diren gehieneko muga-balioekin:

Parametroak	Isuriaren muga-balioak
Gehieneko emaria	Ekoizpen-orduetan batez besteko emariaren hirukoitza baino txikiagoa
Temperatura	45 °C
pH	5,5-9,5
Eroankortasuna	5.000 µS/cm
Benetako kolorea	350 unit. Pt/Co
Itxurazko kolorea	1/50 detektaezina disoluzioan
Tentsioaktibo anionikoak	10 mg/l
Solido lodiak	Ez daude
Solido jalkikorak	20 ml/l
Solido esekiak	600 mg/l
Olioak eta koipeak	100 mg/l
OEB ₅	500 mg/l
OEK	4 aldiz edo OEB ₅ edo, hori ezean, 1.600 mg O ₂ /l

2022ko urriaren 11, asteartea

Parametroak	Isurien muga-balioak
Nitrogeno guztia (organikoa+amoniakala+NO ₂ +NO ₃)	75 mg/l (N)
TKN	75 mg/l (N)
N-NO ₃	75 mg/l (N)
N-NH ₃	40 50 mg/l (N)
P-guztira	15 mg/l (P)
SO ₄	1.000 mg/l
SO ₃	5 mg/l
S ⁼	1 mg/l
Cl	1.600 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Burdina	20 mg/l
Zinka	3 mg/l
Guztizko kromoa	1 mg/l
Kromoa (VI)	0,3 mg/l
Kobrea	1 mg/l
Kadmioa	0,1 mg/l
Nikela	2 mg/l
Beruna	0,5 mg/l
Merkurioa	0,01 mg/l
Artsenikoa	0,1 mg/l
Barioa	10 mg/l
Eztainua	2 mg/l
Manganesoa	2 mg/l
Ag	0,5 mg/l
Selenioa	0,1 mg/l
Aluminioa	20 mg/l
Guztizko Cn-a destilazioan	0,5 mg/l
Cn askeak	0,1 mg/l
Zianatoak	2 mg/l
Kloro askea	0,5 mg/l
Fluoruroak	10 mg/l
Toxikotasuna	25 equitox./m ³
AOX	2 mg/l
Hidrokarburoa guztira	10 mg/l

Taula honetako mugak hartzen dira kontuan, egindako saiakuntzari lotutako ziurgabetasuna aintzat hartuz.

Ezin izango dira diluzio-teknikak erabili isurien muga-balioak lortzeko.

D.2.3.3.– Arazketa- eta hustuketa-instalazioak.

Hondakin-uren arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

Diseño de Soluciones Ambientales SLren urak poligonoaren sarera isurtzen dira. Horrek bulkatzeko ponpa du udalaren saneamendu-sarearekin elkartu baino lehen. Zentzu horretan, lurzatiaren hondakin-uren ponpatze hori egoera onean egon beharko da, ponpatu beharreko urak denbora luzez geldituta izan gabe eta behar diren mantentze-lanak eta garbiketak eginda, Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren Isuriak arautzeko araudiko mugak betetzeko.

Euri-ur zikinak sare independente batekin biltzen dira erdiko eta atzeko patioetan, eta modu berezian bidaltzen dira 20 m³-ko edukiera duen hobi batera. Horrela, euriaren lehen minutuetako ura biltzen da, eta ondorengo kantitateak zuzenean bidaltzen dira industrialdeko sarera.

Bildutako uraren analisia egingo da eta, lortutako emaitzen arabera, kanpora bidaliko edo hondakin bezala kudeatuko da.

D.2.4.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatzeko behar bezala bete beharko dira Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Ekonomia zirkularra bultzatzekoa, eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoak, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Birsortzea-berrerabiltea lehenetsiko da balorizatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baldin aurreikusten bada zabortegei baimenduan deuseztatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak –hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen– xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera –Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena–.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-diferentziak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartuta. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezkeen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Debako Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 31.2 artikuluekin.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarrita dagoena bete beharko da.

D.2.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko modua	Biltegitratze mota	Sortze- prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
161001	Garbiketa-urak	HP5	D15	Bidoia	Zerbitzu orokorrak	6.000
150202	Xurgatzaileak, iragazkiak eta zapiak (gai arriskutsuekin kutsatutakoak)	HP5	D15	Bidoia	Zerbitzu orokorrak	200
150110	Plastikozko ontziak (gai arriskutsuekin kutsatutakoak)	HP5	R3	Big bag	Zerbitzu orokorrak	35
160504	Substantzia arriskutsuekin kutsatutako aerosolak	HP3/5	R13	Big bag	Zerbitzu orokorrak	40
200121	Hodi fluoreszenteak eta merkurioa daukaten bestelako hondakinak	HP6/14	R13	Identifikatutako gunean	Zerbitzu orokorrak	10
160506	Laborategiko erreaktiboak	HP6	D15	Boteetan, identifikatutako kaxa batean	Zerbitzu orokorrak	10

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arrisku bakoitzari dagokion izendapena eta kodetzea, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen definitzen dute. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa organo horrek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeke eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isuririk gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Indarreko araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dituzte hondakin arriskutsuak daukaten ontziek, etiketa modu argian jarrita eduki beharko dituzte, eta itxita egon beharko dute kudeatzaile baimendu bati eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezela.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora eduki biltegian. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organok epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako dagokion agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Diseño de Soluciones Ambientales SLk fitxategian erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraio-bideak betetzen dituela halako gaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Diseño de Soluciones Ambientales SLk erabilitako industria-olioen kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan erabilitako olioak.

i) Gailu elektrikoak eta elektronikoak hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira ekipamendu elektriko eta elektronikoak hondakinak; besteak beste, lanpara fluoreszenteak. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko bete-beharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiria hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Diseño de Soluciones Ambientales SLk PCB eduki dezaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak (errege-dekretu haren bidez, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeke eta kudeatzeko neurriak ezartzen dira) eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Diseño de Soluciones Ambientales SLk Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak –ozono-geruza agortzen duten substantzietan buruzkoak– adierazten dituen substantziak baditu, berreskuratu egingo dira, alderdiek onetsitako bitarteko teknikoak bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birstortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Diseño de Soluciones Ambientales SLk laburpen-memoria bat deklaratu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Memoria horretan, jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean jaso beharko du zeintzuk dauden biltegitratuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Datu horiekin batera, dagokion ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du, dagokion urtekoa.

m) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 64. artikuluekin bat etorriz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori hiru urtez gorde beharko da, gutxienez, eta urtero bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

n) Hondakin arriskutsuak kudeatzeko funtsezko oinarrietako bat betetzeko, zeinaren helburua baita hondakin horiek ahalik eta gehien murriztea baldin eta urtero hondakin arriskutsuen 10 tona baino gehiago sortzen badira, Diseño de Soluciones Ambientales SLk lau urterik behin, gutxienez, plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumeneko Sailburuordetzari hondakin arriskutsu horiek murrizteko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikulua araberaren arabera (7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta lurzoru kutsatuen, Ekonomia zirkularra bultzatzeko), baldin eta, lege horren araudia garatzean, Diseño de Soluciones Ambientales SL ez bada katalogatzen hondakin arriskutsuen sortzaile txiki modura.

o) Baldin eta Diseño de Soluciones Ambientales SL azken jabea bada Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi batena, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

p) Apartatu honetako f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoen bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

q) Amiantoa duten hondakinak daudela hautemanenez gero, Diseño de Soluciones Ambientales SLk 108/1991 Errege Dekretuaren (amiantoa ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzkoa) 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak.

D.2.4.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak hondakin arriskugabe hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Ekoizpen zenbatetsia (t/urte)
Zura	170201	Zerbitzu orokorrak	puntuala
Plastikoak eta bilgarriak	170203	Zerbitzu orokorrak	puntuala
Hiri-hondakinak	200301	Zerbitzu orokorrak	puntuala

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu batera eman beharko dira.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegitatu. Hondakinen azken helburua balorizatzea denean, 2 urtez biltegitatu ahal izango dira.

c) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Diseño de Soluciones Ambientales SLk tratamendu-kontratuak edo agiri ofizial baliokideak erregistratu, eta fitxategian gorde beharko ditu, nahitaezkoak badira, hiru urtez gutxienez.

d) Hondakina zabortelean biltegitatuz gero, hondakin arriskugabea eraman aurretik kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da, hondakinak hondakindegian biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeari buruzko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraikiz.

e) Balorizatze edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 31.2 artikulua araberan.

f) Baldin eta Diseño de Soluciones Ambientales SL azken jabea bada Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi batena, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

g) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 65. artikuluan zehazten denari jarraikiz, Diseño de Soluciones Ambientales SLk laburpen-memoria bat deklaratu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Memoria horretan, jaso beharko du zein den sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, eta zerrenda batean jaso beharko du zeintzuk dauden biltegitatuta aldi baterako deklarazioaren xede den ekitaldi-amaieran. Datu horiekin batera, dagokion ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du, dagokion urtekoa.

h) Hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia zirkularra bultzatzekoaren, 64. artikulua erekin bat etorritik, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori hiru urtez gorde beharko da, gutxienez, eta urtero

bidali beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

i) Apartatu honetako c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), g) eta h) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoz bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

D.2.5.– Lurzorua babesteari dagozkion baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako betebeharrak betetzeko aurkeztutako lurzorua-egoerari buruzko aurretiazko txostenaren gomendioekin bat etorritik, Diseño de Soluciones Ambientales SLk lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

Bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzorua-egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko lerrokan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarritzko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta aldizkakotasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzorua-egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzko txostena, eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurra mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) apartatuarekin, induskatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa burutu bitartean gairatze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzorua-egoerari buruzko txostenaren kalitatea ikertzen eta oneratzeko egiaztatutako erakunde batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organok onartu beharko du hura egikaritu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den gunearen mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa noiz hastea aurreikusten den.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurzoruaren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira. Horrez gain, induskatutako materiaren berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, *Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan* jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa gauzatzeko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan (Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa) biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa; horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde akreditatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpideak beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru-arloko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, bat etorritz aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuarekin, betiere.

D.2.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Behar diren neurri guztiak ezarriko dira, indize akustiko hauek gainditu ez daitezten:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60}$ segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta atek itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60}$ segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 metroko garaiera neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq,d}$, $L_{Aeq,e}$ eta $L_{Aeq,n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq,T_i}). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu gaindituko 1. taulan 5dB-tan finkatutako balioak.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

E) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Atmosferarako emisioak kontrolatzea.

a) Diseño de Soluciones Ambientales SLk emisioak kontrolatu behar ditu, informazio honi jarraituz:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
1	20016575-01	Gas-ikuzketa	Azido klorhidrikoa (HCl)	5 urtean behin	UNE-EN 1911
			Gutzizko karbono organiko lurrunkorra (GKOL)		UNE-EN 12619
			Hidrogeno sulfuroa (H ₂ S)		EPAko 11. metodoa
			Amoniakoa (NH ₃)		Jarraibide teknikoan arabera
			Azido fluorhidrikoa (HF)		UNE-ISO 15713

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, 212/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sail-buruaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan zerrendatutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, eta edozelako maiztasunarekin, emisioen iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

E.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluan (urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketan jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskinean (abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketan jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1. IP	Ur beltzak	pH-a, eroankortasuna, tentsioaktiboak, anionikoak, SE, olioak eta koipeak, OEB5, OEK, N-NH ₃ , guztizko P, sulfatoak, kloruroak, guztizko Fe, guztizko Zn, guztizko Cr, guztizko Ni	Urtean behin	Kanpokoak

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldiaren egingo dira beti.

c) Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako apartatua ezarritako kontrol-parametro guztiek betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.3.2 azpiapartatua ezarritako mugak.

E.3.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urtean behin: L_d , L_e , L_n , L_{Aeq} , T_i eta $L_{Aeq,60 \text{ segundo}}$. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Aurreko apartatua adierazitako ebaluazio guztiak administrazioaren II. mailako erakunde laguntzaile batekin egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoko ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarriko Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.4.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatua eskatutako dokumentazioaren kalitatea izan gabe, hurrengo datu hauek aurkeztuko dira lurzoruan afektazio berri bat gertatu izanaren susmoa hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldiaren diren intzidentziak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurrazpiko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolakak iragazgaitzea, drainatzeak, kubetak eta kutxatillak– bai eta larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Tresneria eta azalera egoera onean daudela egiaztatzen, edo, hala badagokio, horietan antzemandako hutsuneak jasotzen dituen berriarazko adierazpena jaso beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioen adierazpena, halakorik balego, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduak dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoa onartzen du–, eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Diseño de Soluciones Ambientales SLk lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea ezaugarritzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jariora; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jariora alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko, aurkeztu beharreko informazioa urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

E.5.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak ondorengo taulan agertzen diren jardueraren inguruko parametro-adierazle nagusien jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Kudeatutako	t			Urtero
Energia-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	KWh	Kontsumo elektrikoa / sortutako hondakinak	KWh/t	
	Erregaien kontsumoa (gasolioa)	l	Erregaien kontsumoa / sortutako hondakinak	l/t	
	Erregaiaren kontsumoa (gasolina)	l	Erregaien kontsumoa / sortutako hondakinak	l/t	
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m ³	Ur-kontsumoa / kudeatutako hondakinak	m ³ /t	
Lurzoruaren kutsadura	Istripuzko isuriek in lotutako jazoera kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzorua)	Kop./urte	Istripuzko isuriek in lotutako gorabeheren kopurua	Kop./urte	
IKS	Ezarritako eta ziurtatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/urtea	Ekoscan/urtea edo/eta ISO14001/urtea edo/eta EMAS/urtea	Bai/Ez Zein/urtea	Urtean

E.6.– Emaizak kontrolatu eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honi, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak soilik bidaliko dira kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan.

Emaizta horiek urtero bidaliko dira, beti martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbide posibleak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik hala egin ez bada.

E.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agiritan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, egiaztatu ahal izateko adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta funtzionamendu-baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren apartatuko D.2.4 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. "Instalazioan ekoizitako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak" jarraitu beharko da, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

F.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Diseño de Soluciones Ambientales SL enpresak lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hasi beharko du, bi hilabeteko epea agortu baino lehen, jarduera behin betiko uzten duenetik hasita, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Diseño de Soluciones Ambientales SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuaren D.2.4 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritz.

F.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duenean, 13. artikuluan arautu bezala, Diseño de Soluciones Ambientales SLk, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumeneari eragina izan dezakeen isuri edo emisio oro saihesteko.

F.4.– Ezohiko funtzionamendu-kasuan aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan proposatutako ohiko egoerez bestekoetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak:

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko jarioak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako emisioak eta isuriak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak beharrezko maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibilgura ibairatuko aldizkako

garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegei baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegiratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Instalazioek lohiak tratatzeko aukera izanez gero, horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura "bypass" bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez "bypass" bidez isuriak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isuriak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. "bypass" horren bidez aurreikusi gabeko isuriren bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, eta dagokion txostena Ingurumen Sailburuordetzara bidali (apartatu honen j) puntuan adierazitakoari jarraituz).

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketan lurzatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hauts-itxurako produktuak biltegiratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak izan beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegiratuko dira, halako baldintzetan ezen ezin izango baitira ingurunean sakabanatu.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegiratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztiak behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erresebakiko edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipamendu egokiak.

i) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura bat edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen jarioak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraztea:

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera

horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Halakorik badago, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko emisioen bat egonez gero, SOS Deiak eta Debako Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Istripuzko isuria gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioari buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Anomalia berriz ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak benetan aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isuria gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomen-datzen badute, aldatu ahal izango dira babes- edo zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa, baita neurtu behar diren parametroak, neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugak ere.

Era berean, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa alda daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) E-PRTR komunikazioa.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehen, Diseño de Soluciones Ambientales SLk aurreko urteko emisio atmosferikoei eta uretara egindako isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin bat etorritik.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorritik uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da bete egiten dela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

I) Instalazioa aldatzea.

Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldezturik:

https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_20194158899329/procedures/proc_20194158899905/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones_eu.docx

Organo horren onespena ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Industriako emisioen Erregelamendua onartu eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen du zer irizpide hartu behar diren kontuan aldaketa funtsezkotzat jotzeko.

Nolanahi ere, bat etorritik urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorritik abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egikaritu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraituz.

J) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduarien 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

K) Ingurumen-arloko erantzukizuna.

Diseño de Soluciones Ambientales SL 3. lehen tasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera. Agindu horren bidez ezartzen da, hain zuzen ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten diren eta urriaren 23ko APM/1040/2017 Aginduak aldatzen duen ministerio-aginduak onartzeko lehen tasun-ordena eta egutegia.

Diseño de Soluciones Ambientales SLk bere jardura profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea hein batean garatzeko araudia onartzen duena). Artikulu horren hirugarren puntuaren arabera, operadoreak ingurumen-arriskuen azterketa eguneratuko du egokitzat jotzen duen guztietan eta, aldiro, jardueran, instalazioan edo funtsezko baimenean funtsezko aldaketak gertatzen direnean.

Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzari eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako salbuespenei jarraikiz, jardura finantza-bermea eratzetik salbuesita geratzen bada, agintaritzari eskudunari erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio, zeinetan IV.2 eranskinean jasotako informazioa jasoko baita gutxienez.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala».

«Laugarrena.— Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela-eta komeni denean mugako emisio-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea.

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan eginiko aldaketa handien ondoriozko gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta, beste teknika batzuk erabiltzea beharrezkoa denean.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian araututakoaren arabera, uste duenean ingurumen-baimen integratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeit hamar eguneko epean hasteko berrikuste-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legeriak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

2022ko urriaren 11, asteartea

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzekoak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan ezarritakoarekin bat etorritz egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikusteak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-aren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Soluciones Ambientales SLri, Debako Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 12a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.